



Marisol RAMIREZ | FOKU

IKUSMIRA

ZORU ETIKOA ETA ZORU ZITALA

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko ordezkariak zorua zapaltzen ari dira. Herritar guztiena den edo beharko lukeen zoru hori benetan etiko izan dadin nahi dute. Al-

di berean, Txus Martin basauriarra Basurtuko Ospitalean da, bihotzeko ebakuntza egin berritan. Ospitaleetakoa da hamazazpi urtean inoiz edo behin zapaldu duen zoru etiko bakarra. Bilboko ordezkariak direnak erakunde horren teilatuaren itzala den babes izan dadila dute aldarri, baita zoru zitalean izan ohi direnena, etengabeko eraso den teilatupean izan ohi direnena ere. Ospitalean da Txus Martin, herritar guztiena omen den erakunde horrek bidalitako «babesa» gela duela, zoru etiko zapaltzeko botatzarrak jantzita, armak aldean. Eta Bilbon elkarretaratuta koek hor segitzen dute, zoru etiko zapaltzeko bihotzeko ebakuntza edo eskizofrenia paranoidea behar dutenek ospitalean horrelako «babesik» izan ez dezaten. Bihotzeko gaixotasuna edo eskizofrenia paranoidea dutenek zoru zitalik zapaldu behar izan ez dezaten. Xabier Izaga Gonzalez